

Aurten bai!

Usurbilgo taldea gogoz ari da herri kirol lehiarako entrenatzen

Igande honetan, martxoak 18, Sagarrondotik eskenatokiz aldatu eta Urnietan izango da jaia. Artisau azoka eta sagardo dastatzearekin batera, IV. Herri Kirol Lehia ospatuko da Urnietako Udal Pilotalekuan. Usurbilgo kirol taldea, jada, erronkarako prest da.

Oso fin ibili beharko dute martxoaren 18an, Astigarraga, Urnieta eta Hernaniko kirol taldeek. Gogor eta ilusio handiz prestatzeaz gain, ahalik eta saiorik onena egitera joango baitira Usurbilgo ordezkarriak. Azken aste hauetan egindako prestaketa lanak Urnietako Udal Pilotalekuan erakutsi ahal izango dituzte igande honetan, martxoak 18. IV Herri Kirol jaia ospatuko da bertan.

Zazpi probatan ahalik eta saiorik politena egiteko prest izango dira. Sokatira, sagar iltzatzea, ingudea, harri jasotzea, txingak, zaku lasterketa eta lokotxak dira sagardoaren lurraldeko lau herriak aurrez aurre jarriko dituzten frogak.

Aginagan, gogor prestatzen

Hamazazpi laguneko taldea osatuta, San Praixkutan jaietako txosna guneetako bat den lekuan, Aginagako Eliza Zaharreen alegia, bildu izan dira entrenamendu saioetarako. Astean hiru egunetan, afalaurretik. Kontuan hartu behar da, antolatzaileek aipatu izan duten bezala, espresuki jaialdi honetarako prestatu eta entrenatzen direla. Oraindik ere, beraz, meritu handiagoa dute.

Iaz aipatutako kirol frogak gehienetan bigarren postua eskuratu zuten. Bestalde, azken edizioetan, sagardoaren eremuko gainerako herrietako kirol taldeek ezin izan dute Urnietako kirol taldea mendean hartu. Aurtengoan, joera hori hausteko gogoz dira herrikoak; "lehen postua eskuratzera goaz", adierazi dute.

Lau herrietako kirol taldeek zein baino zein erakustaldi hobek eskaintzen saiatuko dira. Baina azkenean, lehia sano horretan ere, gatzeta eta piperra jartzen duten emaitzak izango dira. Aipatu bezala, azken



USURBILGO TALDEA DUELA ASTE BATZUK HASI ZEN SAGARRONDOTIK JAIALDIKO "DESAFIOA" PRESTATZEN.

edizioetan urnietarrak nagusitu dira sailkapen nagusian. Aurten gerta daitekeenaz galdetuta, hauxe litzateke IV Kirol Lehia horretako podium-a parte hartzaile usurbildar batzuen iritzi: Urnietakoak irabazle, usurbildarrak bigarren, Astigarragoak hirugarren eta azkenik, Hernanikoak. Ia, azken urteetako joera hautsi eta aurtengoan Usurbilgoak nagusitzen diren. Igandean, martxoak 18, goizeko 11:00etan hasiko da kirol festa handia.

Herri Kirol Lehia, igande honetan Urnietan

10:00. Sagardo festa herriko plazan: Sagardo dastaketa eta Buruntzaldeko artisauen azoka. Bildotsak burduntzian erreko dira plazan bertan.

11:00. IV. Herri Arteko Herri Kirol lehia Urnietako udal frontoian. Parte hartzaileak: Urnieta, Hernani, Astigarraga eta Usurbil. Frogak: sokatira, sagar iltzatzea, ingudea, harri jasotzea, txingak, zaku lasterketa eta lokotxak.

12:00. Marijo Sardon harri jasotzaileen **errekor saiakera**; 113 kiloko harri zilindrikoarekin bost minutuko txandak.

Hamazazpikoa prest

Herri Kirol Lehiaren laugarren ediziorako Usurbilgo taldea osatua dago. Ondorengoak dira, jokoan izango diren zazpi probatan Astigarraga, Hernani eta Urnietako kirol taldeek aurrez aurre izango dituzten usurbildarrak:

Sagar iltzatzea: Karmele Bengoetxea eta Iker Mujika.

Harri jasotzea: Arkaitz Portularrume.

Ingudea: Iñaxio Murua.

Txingak: Iker Portularrume, Juantxo Zuriarrain.

Zaku lasterketa: Mikel Soroa, Kepa Unanue, Joxeba Aizpurua.

Lokotxak: Mikel Aranburu, Rosa Uribe.

Sokatira: Arkaitz Portularrume, Mikel Soroa, Aitziber Unanue, Aitziber Matxain, Joxe Mari Bengoetxea, Iñaki Errekondo, Joxe Luis Bruño, Joxeba Larburu.